

# Gida didaktikoa

**Gazteak**<sub>20</sub>  
Berdintasunean





# IRAKASLEENTZAKO GIDALIBURU DIDAKTIKOA

**IZENBURUA:** Gazteak Berdintasunean 2.0

Gida didaktikoa

**EDITOREA ETA EGILEA:**

***EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea***

Manuel Iradier, 36

01005 Vitoria-Gasteiz

**TESTUAK:**

Josetxu Riviere, Ritxar Bacete

Diseinu grafikoa: Amaia Ballesteros

# Aurkibidea

## 1. SARRERA

## 2. GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0: HELBURUAK

2.1 Helburu orokorra

2.2 Helburu espezifikoak

2.3 Metodologia

## 3. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

3.1 Alderdi orokorrak

3.2 Desberdintasunen eraikuntza: sexu/genero sistema

## 4. MASKULINITATEEN ERAIKUNTZA

4.1 Gizonak eta boterea

4.2 Berdintasunaren kontrako oztopoak politikaren eremuan

4.3 Berdintasunaren kontrako oztopoak lan-munduan

4.4 Oztopoak kulturaren eta gizartearen arloan

4.5 Berdintasuna eta tratatu txarrak bikote-harremanetan

## 5. GENERO-ARAZOAK GIZONEZKOENGAN

5.1 Maskulinitate-eredu hegemonikoaren ondorioak

5.2 Gizonak, eta beren burua eta osasuna zaintzearekiko harremana

5.3 Bizi-itzaropena

5.4 Gizonak eta suizidioa

5.5 Gizonak, delitu-egitea eta indarkeria

5.6 Gizonak, arriskua eta ibilgailuak gidatzea

5.7 Gizonak eta drogen kontsumoa

## 6. ZENBAIT ONDORIO

## 7. BIBLIOGRAFIA





## 1. Sarrera

**Gazteak Berdintasunean 2.0.** proiektuaren helburu nagusia da gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea eta gatazkak konpontzeko jarrera baketsuak balioestea, teknologia berrien bitartez eta sare sozialak hezkuntza-bidetzat erabiliz.

Proiektu hau **Gizonduz Programa** barruan dago, eta honen helburua da gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra kontzientziatzea, eta horretan inplikatutako daitezkeen eta parte har dezaten bultzatzea. Gizonen inplikazioa lortzeko funtseko ardatzetariko bat nagusiki helduentzat antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa izan da, bai aurrez aurrekoa, bai onlinekoa.

**Gazteekin** esku-hartze puntual batzuk egin dira, eta guztietan ikusi da material eta estrategia espezifikoak behar direla herritar horiengana iristeko. Teknologia berriak, sare sozialak eta gazteen ikus-entzunezko munduari lotutako hizkerak erabiltzea: horra hor gazteekin esku hartzeko programa baten zati garrantzitsu bat.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko VI. Berdintasun-Planak hainbat ataletan jasotzen du gizonak eta mutilak berriaz kontuan hartzeko proposamena. Honela dio: “Gizonei dagokienez, berdintasunaren balioa onartzeko, emakumeen balioak izaten ikasi behar dute eta beren gorputzari, gaitasunei eta ekintzei ematen dieten gehiegizko balioa ahaztu behar dute. Berdintasunaren balioan maila horretatik eragitea funtsezkoa da indarkeria maskulinoa desegiteko, deslegitimatzeo –errotik ezabatzeo–, eta gizonengan gizakien garapenaren ikuspuntutik positiboak eta aberasgarriak diren beste esperientzia batzuk garatzeko, besteak beste, zainketaren etika”.

VI. berdintasun-planak, besteak beste, helburu hauek ditu: Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzeko duten eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea (1.1.5); eta haur eta gazteek etxeko eta zaintza lanak egiten ematen duten denbora handitzea, mutilei arreta berezia jarriz. (5.1.4). Desberdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arteko harremana agerrarazten duten programa eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea -batik bat mutil eta gizonena-, baita prebenituz laguntzen dutenena eta indarkeriarik gabeko gatazken konponbidea sustatzen dutenena ere (7.1.3)

**Hiru nerabetik batek (% 32,1ek) bizitzan zehar emakumeren bati tratu txarrak emateko arriskua dauka.** Hala dio Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak eta Berdintasun Ministerioak egindako azterlan batek. Honakoa da azterlanaren beste ondorio esanguratsu bat: emakumezko nerabeen % 18,9k (bostetik batek) tratu txarrak paira litzake etorkizunean, “sexismoa justifikatzen duelako eta gatazkei aurre egiteko bidetzat hartzen duelako eraso”.

Duela gutxi, Genero-indarkeriarako Gobernuko Ordezkaritzak editatu duen “Genero-indarkeriaren perzeptzioa nerabezaroan eta gaztaroan” ikerlanak adierazi du “hiru gaztetik batek jotzen duela saihetsezintzat edo onargarritzat, inguruabar batzuetan, ‘bikotekidearen ordutegiak kontrolatzea’, ‘bikotekideari familia edo lagunak ikustea galaraztea’, ‘bikotekideari ez uztea lan egiten edo ikasten’ edo ‘egin ditzakeen edo egin ezin ditzakeen gauzak esatea bikotekideari’.” Eta Emakumeen gaineko Indarkeriari buruzko Makroinkestari (2015) erreparatuz gero ikusiko dugu **bikotekidea eduki duten 16 eta 24 urte bitarteko emakume gazteen % 38,3k jasan dutela kontrol-indarkeria** noizbait.

**Gazteen arteko harremanetan oraindik ere sexismoa dago,** eta, gainera “ez dute baliabiderik genero-indarkeriaren egoera bat antzeman eta ulertzeko, eta egoera horri aurre egiteko”. Ondorio hori islatzen da azterlan horietan eta beste batzuetan: esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailak egindako azterlanean (Gaztediaren adierazleak) eta EHUKo Soziologia Fakultateak egindako azterlanean (Genero-indarkeria bikote-harremanetan Bilboko nerabe eta gazteengan). Izan ere, gazte eta nerabe askok ez dituzte tratu txartzat jotzen jokabide jakin batzuk –ezertarako balio ez duela esatea, iraintzea, beldurra eragitea edo harremanak eta jarduerak kontrolatzea–; beraz, ez du alarmerik pizten, ezta inguruan babesik bilatzen ere.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da esku-hartzeko proiektuak beste era batera egitea: gizartearen sektore gazteen artean emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen adierazpide berriekekin bat etorri behar dute, horietara egokituta egon behar dute.

## 2. Gazteak berdintasunean 2.0: Helburuak

### 2.1. Oro har

- Gizonezko nerabe eta gazteak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra kontzientziatu daitezen, eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzea, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak erabiliz.

### 2.2 Helburu espezifikoak

- Mutilak berdintasunaz sentsibilizatzea, pertsonen arteko arazoak indarkeriarik gabe konpontzeaz eta indarkeria maskulinoez.
- Gazteen egunerokoan indarkeria-, jazarpen- eta kontrol-egoerak eta jarrerak ikusarazten laguntzea.
- Indarkeria matxistari aurrea hartzeko trebetasunak garatzea.
- Gazteek jarrerak alda ditzaten bultzatzea, berdintasunaren aldekoak izan daitezen, eta emakume gazteak ahalduntzen laguntzea.
- Maskulinitatearen beste eredu batzuk proposatzea.
- Hezkuntza-tresna berritzaileak garatzea, teknologia berriak aplikatuz.
- Informazio jarraitua eta sistematizatua jasotzea neska-mutilek berdintasunaz, indarkeria maskulinoez eta emakumeen aurkako indarkeriaz duten pertzepzioari buruz.

### 2.3 Metodologia

Gazteak berdintasunean 2.0 unitate didaktikoa bideojokoari lotuta dago. Abentura grafikoan zehar ikasleek konpondu behar izan dituzten egoerak dira gerora ikasgelan egingo den lanaren oinarria.

Material horren helburua da irakasleen beharren eta erabakien neurrira egindako hezkuntzan esku hartzeko tresna bilakatzea. **Ikasgelan egin beharreko jardueren dokumentuan** –material honekin batera doa–, **abentura grafikoan oinarritutako zortzi jarduera proposatu ditugu**. Jarduerak zein bere aldetik landu ahal izan daitezen pentsatu dira proposamenak, eta bakoitza garatzeko 50 bat minutu beharko dira. Beraz, irakasleen esku egongo da jarduera bat edo bestea aukeratzea. Lan-fitxa bakoitzak bi bertsio ditu: bata irakaslearentzat eta bestea ikaslearentzat.



## 3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

### 3.1 Alderdi orokorrak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio juridiko, etiko eta politiko unibertsala da. Gure gizartean errotua dago, pertsonen arteko harremanetan ageri da, eta, horretaz gainera, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan ere aitortua dago. Ildo horretan, **Emakumeen Aurkako Bereizkeria-mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioak** –Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1979an onartua- emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aldarrikatu zuen. Amsterdamgo Itunaren bidez, Europar Batasunaren funtsezko printzipiotzat izendatu zuten gizon-emakumeen arteko berdintasuna. Bestalde, Espainiako Konstituzioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia-estatutuak berdintasun-eskubidea eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ez jasateko eskubidea aldarrikatzen dute. Eta xedatzen dute botere publikoek obligazioa dutela pertsonen arteko berdintasuna benetako izan dadin behar diren baldintzak ezartzeko eta oztopoak ezabatzeko; izan ere, berdintasun juridikoak ez dakar nahitaez izatezko berdintasuna.

**Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen** xede nagusia da «berdintasunezko gizartea lortzea, non pertsona oro libre izango den, hala eremu publikoan nola pribatuan, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko roler sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat non berdin aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonak dituzten portaera, jomuga eta beharrianak.»

Emakumeek eta gizonak gure gizartean tradizioz bete izan dituzten roler asko ari dira aldatzen, modu ezberdinean. Aldaketa horiek are ikusgarriagoak eta esanguratsuagoak izan dira emakumeen kasuan. Emakumeek partaidetza handiagoa izan dute lan-merkatuan; hezkuntza-maila guztietara iritsi dira; presentzia handiagoa izan dute prestakuntzan eta kulturaren, eta, apalago bada ere, aginte-eremuetan eta erabaki-guneetan; eta horiei esker, gizartean aldaketa handiak gertatu dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egiteko. Aldaketa horiek gertatzeko, funtsezkoa izan da mugimendu feministen ekarpena, eta emakume guztien eskubideen alde isilean lan egin duten emakume guztien ahalegina.

Hala ere, lan-merkatuari, parte-hartze politikoari, etxeko-lanei, emakumeen kontrako indarkeriari eta pobreziaren feminizazioari buruzko datuak, oraindik ere, **berdintasunik gabeko gizarte** baten isla dira, eta gizonen eta emakumeen harremanetan eta posizio sozialean hierarkizazioa dagoela erakusten dute. Hierarkizazio horren jatorria, hain zuzen, sexuaren araberako jokaera-estereotipo eta -eredu soziokultural batzuetan dago, non emakumei tradizionalki etxeko eremuaren ardura izendatzen zaien, eta gizonari eremu publikoarena, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginda.

Bestalde, gizartean gero eta gehiago onartzen da emakumeek berdintasunerako duten eskubidea. Hala ere onartzen da gizonak inplikatuago egon behar dutela, eta berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra agertu behar dutela, hori komeniko litzatekeela, justizia sozialagatik ere bai; horretarako, etxeko lanek, ugaltzeko zereginak eta zainketa-lanek berekin dakartzaten eginbeharrak onartu behar dira, eta jarrera berdinzaleagoak eta sexismorik gabeak hartu behar dira bizitzan. Hala, gure gizartea garatzeko, funtsezkoa izan da emakumeengan gertatutako aldaketa, eta emakumeak lan-, gizarte- eta kultura-alorrera azaldu izana; baina oraindik ere badugu zer egin: gizonengan ere aldaketa eragitea, eta **gizonak berdintasunaren aldeko borrokan eta praktikan aritzea**.

Gure gizartean berdintasunaren alde gertatutako aldaketa guztiak gorabehera, gazteen artean oraindik ere gaitasunak mugatzen dizkien jarrerak daude, sozializazio sexistaren ondorioz; beste erronka eta arazo batzuk agertzen dira, eta horiek analizatzeko eta horietan esku hartzeko, beharrezkoa da beste modu batzuk baliatzea.

## 3.2 Desberdintasunen eraikuntza: sexu/genero sistema

### • Sexua

Gizakiak gizon edo emakume bezala definitzen duten ezaugarri biologikoak dira. Ezaugarri biologikoen multzoak ez dira elkarren baztertzailerak; izan ere, badira biak dituzten pertsonak, baina normalean ezaugarri horiek gizakiak bi taldetan banatzen dituzte: gizonak eta emakumeak. (OME)

### • Generoa

Gizonak eta emakumeak desberdintzen dituen sinesmen, ezaugarri pertsonal, jarrera, sentimendu, balio, jokaera eta jardueren multzoa da; desberdintze hori gizarte eraketaren prozesuaren bidez egiten da, eta prozesu horrek hainbat ezaugarri ditu. Alde batetik, zenbait alorretan garatzen den prozesu historikoa da: estatuan, lan merkatuan, eskoletan, komunikabideetan, legeetan, familian eta pertsonen arteko harremanetan. Beste alde batetik, prozesu horren ondorioz ezaugarri eta jarduera horiek hierarkizatu egiten dira, eta maskulintzat jotzen direnei balio handiagoa ematen zaie. (Benería, 1987, 46; Maquieiran 1998, Estebanen 2001, 28an jasoa)

Gizon edo emakume izaten, neska edo mutila izaten, ikasi egiten da, eta definizio hori jaio aurretik ere baldintzatuta dago (izena aukeratzean, gela apaintzean, arropa erostean...). Direna izango badira, gizakiek ikasi egin behar dute, eta generoa da familiak, eskolak, erlijioek eta bizi garen gizarteak irakasten diguten lehen gauzetako bat; garrantzitsuenetako bat. Hain da garrantzitsua ikasketa hori, non haren gainean eraikitzen baitira identitate pertsonalaren ezaugarri nagusiak. Bizikidetzaren gobernatzeko duten arau eta balio kolektiboak barneratzeko, ulertzeko eta onartzeko prozesu horri **sozializatzea** esaten diogu. Prozesu horren eraginkortasunaren muinean dago arauak betetzeko exigentzia unibertsala izatea (mundu guztiak bete beharrekoa), baina berezia eta ñabartua, gizarte-eraikuntzaren kontzeptzio sexistaren ondorioz. Hala, arauak betetzen dituztenak saritu egiten dira, eta obeditzen ez dituztenak, berriz, zigortu.

Hala bihurtzen dira neskak emakume eta mutikoak gizon, sozializazio-prozesu baten bidez. Prozesu horretan, sexu bakoitzarentzat egokitzat jotzen diren jarrerak bultzatzen dira, eta indarrean dauden rol eta estereotipoekin bat ez datozenak zigortzen.

Prozesu horrek ez die pertsona guztiei berdin eragiten. Hala ere, ereduak zehatz-mehatz kopiatzen ez diren arren, jokamolde nagusi edo hegemoniko batzuk gailentzen dira, maskulinitateari eta feminitateari esleitutako estereotipoak erreproduzitzeko joera dutenak.

Bizi garen gizartean eta kulturaren, hainbat ondorio dakartzkio sozializazioak gizon-emakumeen bizitzari. Sexismoa muga bat da, pertsonen beren gaitasunak garatzeko aukerak murrizten dizkiona; beraz, pertsonaren eta gizataldearen askatasuna oztokatzen du. Sistema patriarkal batean, sozializazio sexistak emakumeak baztertu eta zapaltzen ditu eta gizonei aukerak mugatzen dizkie beraien kapazitate batzuetan.

### • Zertan diren genero-estereotipoak:

Portaera bera desberdin baloratzen da, protagonistaren sexua zein den. Halako gaitasun jakin batzuk sustatzeko, desberdin hezten dira neskak eta mutilak. Adibidez «delikatuegia» den mutikoa zuzentzen saiatzen gara, gizonaren estereotipoari esleitutako eredu indartsutik aldentzen delako.

Kontuan izan behar da portaera horiek ez direla kontzienteki hausnartuak, ezta norberak sortuak ere; aitzitik, sozializazio sexistaren ondorio dira, zeinak «naturalizatu» egiten baititu genero-estereotipoak. Estereotipo horiek ikusezin egiten dira, eredu dominatzaileen makineria sinbolikoak eta estrukturalak sortuak, partekatutako eta lagunduak direnez gero.

**Ume bat honela portatzen denean****Neska bada, hau esaten da****Mutila bada, hau esaten da**

Aktiboa	Urduria	Ipurterrea
Tematia	Egoskorra	Saiatua
Sentikorra	Delikatua	Maritxua
Hizketa errazekoa	Lotsagabea, zakarra	Bere buruaz seguru
Desinhibitua	Kokina	Atsegina
Manaerraza	Otzana	Ahula
Jeniokoa	Histerikoa	Beroa
Ausarta	Itsumustuan jokutzen du	Bipila
Itxia	Herabea	Ideiak ondo hausnartzen ditu
Jakingura	Kuxkuxeroa	Azkarra
Zuhurra	Zuhurra	Beldurtia
Ez badu partekatzen	Berekoia	Berea babesten du
Ez badu men egiten	Erasokorra	Tinkoa
Iritziz aldatuz gero	Aldakorra, buruarina	Egindako okerrak aitortzen ditu

*Taularen jatorria: Vázquez, Norma, 2001: El ABC del género.*

Hala, **sozializazio sexistaren** bitartez lortzen da pertsonen portaerak, kezkek, sentimenduak, harremanak eta etorkizunerako itxaropena neurri handi batean homogeneizatzea. «Izan behar denaren» itxaropenen eta irudi sozialen bilbe sinboliko eta funtzional bat taxutzen du horrek guztiak, geure burua eraikitzeo delata haiei moldatuz, delata haiei kwontra eginez– oinarri hartzen dugun erreferentzia-sistema, hain zuzen.

«Izan beharreko» horiek **genero-rolak** dira, eta antzemandako portaera-arauen sorta, talde edo sistema sozial jakin batean maskulinitzat nahiz femeninitzat jotzen diren halako jokamolde eta itxaropenen multzoa. Hala, gizonetzkoie oraindik ere rol maskulinoa esleitzen zaie, gizartean estimatua eta eremu publikoarekin lotua; gizonak indartsuak, aktiboak, independenteak eta ausartak izatea espero da. Aldiz, emakumezkoie rol femeninoa esleitzen zaie, estimazio gutxikoa eta eremu pribatuari lotua, etxearekin eta zaintzarekin lotutako lanak; emakumeak sentimentalak, pasiboak, mendekoak eta beldurtiak izatea espero da.

Bigarren hezkuntzako zenbait ikastetxetan egindako lantegi batzuek izandako emaitzak genero-estereotipo eta rolen indarrari, prebalentziari eta kemenari buruzko datu esanguratsu bilakatu dira Euskadin. «Nolakoak gara gizonak?» eta «Nolakoak gara emakumeak?» galderak eginda, nerabe-talde guztiak bat etorri ziren: emakumeak sentikorrak, histerikoak, intuitiboak, amultsuak, kuxkuxeroak, adeitsuak, garbiak, beldurtiak... dira. Gizonak, berriz, zangarrak, bortitzak, kirolariak, desleialak, aktiboak, astapotroak, deslaidak... Ez da harrizkoa egindako lantegi guzti-guztietan estereotipo berberak errepikatzea.

Baina aintzat hartu behar da, halaber, genero kontzeptuaren funtsa estereotipoetan, roletan eta hizkeran ez ezik, gizonen eta emakumeen arteko benetako **botere-erlazioetan** eta horiek barneratzeko moduan ere badagoela.

Gazteak Berdintasunean 2.0 ekimenaren lan-proposamenaren nondik norakoak egoki definituko badira, beharrezkoa da identitate maskulinoek gure gizartean zer esanahi kultural izan duten eta nola eraiki diren ondo aztertzea.

Badira gizarte jakin batean eta garai jakin batean gizonak eta emakumeak definitzen dituzten ezaugarri batzuk. Ezaugarri horiek aldatu egin dira denboran zehar, eta definizio horiek eraikitzen dituzten gizarteekin batera eboluzionatu dira. Halaber esan behar dugu hainbat portaera desberdin daudela pertsona bakoitzarengan, eta horiek islatuko dutela –gehiago edo gutxiago– noraino barneratua dagoen gizarteak gizontzat edo emakumetzat hartzen duen hori.

Gaur egun hainbat modutan ulertzen eta gauzatzen da maskulinitatea, tradizio kulturalaren eta sozialaren arabera. Haatik, gehienok ezaugarri eta portaera batzuk gizonetzkoie esleitzen jarraitzen dugu, gizon izate hutsagatik esleitzen dizkiegu, ez beste ezergatik.

Unitate didaktiko honetan, **maskulinitatearen kontzeptu hegemoniko edo tradizionalak** zer neurritan dirauen bizirik eta zer neurritan den oraindik baliozkoa aztertuko dugu, besteak beste.

Gizon batzuei pribilegioak esleitzen dizkieten ideologiak dira maskulinitate hegemonikoak, halako bote-forma jakin batzuekin lotzen direlako. Maskulinitate hegemonikoek «gizon izateko» modu arrakastatsu batzuk definitzen dituzte; eta,aldi berean, desegokitzat edo eskasagotzat jotzen dituzte gizon izateko beste estilo batzuk. «Mendeko aldaerak» lirake horiek (Carrigan, Connell & Lee, 1987).

## 4. Maskulinitateen eraikuntza

Dagoeneko esana dugunez, gure gizarteak aldaketa handiak pairatu ditu azken urteotan. Izan ere, emakumeak bizitza publikora, ekonomikora eta sozialera iritsi izana da gure gizarteak azken hamarkadetan bizi izan dituen aldaketa handienetakoa bat. Gizarte-mailan partekatzen diren balioetan errotuta geratu da berdintasuna beharrezkoa dela, gizon-emakumeok eskubide eta betebeharrak berak ditugula, eta hori erdiesteko zenbait ekintza egin behar direla.

Balio tradizionalak aldatzearen aldeko elementu politiko eta sozialak ditugu aurrean. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzak egindako «EAEko biztanleek gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruz dituzten iritziak» (2004) inkestan, gizonen % 94k uste du desberdintasuna murrizteko modu eraginkorra izan litekeela etxeko zereginak partekatzea seme-alabei eredu egokia eskainiz. Halaber, gizonen % 93k berdintzat ditu emakumeak, eta balioetsi egiten ditu haien nahiak, iritziak, lanak, etab. Eta, duela gutxi (2015eko azaroan), Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoaren Kabineteak, «Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzioa eta iritziak» txostenean, egiaztatu egin du herritarren % 77k uste duela emakumeen aurkako indarkeriak egoten jarraituko duela gizonen eta emakumeen artean berdintasun gabezia egon artean.

Haatik, errealitateak diosku oztopo sendoak ditugula berdintasuna erdiesteko bidean, eta datuek, batzuetan, ez dutela islatzen inkestetan agertzen den ustezko gehiengo soziala. Adibidez, EUSTATEk argitaratu duen azken ikerlanean (1993aren eta 2013aren artean denboraren erabilera izan duen bilakaerari buruzkoan) ikusi da emakumeek gizonen baino denbora gehiago eskaintzen dietela egunean etxeko lanei eta etxeko pertsonen zaintzari, bikoitza baino gehiago (3:44 emakumeek eta 1:58 gizonen), ordaindutako lan orduetan gizonen emakumeen herena baino gehiago bakarrik egiten duten arren (3:16 gizonen eta 2:22 emakumeek). Honakoa ondorioztatu da azterlanean: «Ikertutako aldiaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrerapauso nabarmenak egin direla hauteman bada ere, genero-rol tradizionalak hortxe egoten jarraitzen dute, Euskadiko herritarren eguneroko denbora erabiltzeko eta antolatzeko unean. Ondorioz, lanaren sexu-banaketak emakumeen eta gizonen portaera zehazten jarraitzen du, norberaren denborari dagokionean, eta eguneroko bizitzako eremu ezberdinetan parte hartzeko aukerak mugatzen ditu; hala nola, aisialdia eta bizitza soziala.»

Oztopo horiek landuko ditugu unitate didaktiko honetan, batez ere gizonen portaerarekin lotuz; izan ere, jokabide horiek nabarmen nagusitzen dira, gizon gazteen artean homogeenak ez badira ere.

Proposatzen ditugun jardura guztietan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna argien erakusten duten jarrera maskulino batzuk landuko ditugu. Hala, emakumeen aurkako indarkeria, etxeko lanen eta zaintzaren ardura partekatua, bikotekidea kontrolatzea eta gaizki tratatzea, eta gizonen indarkeriak eta jarrera arriskutsuak landuko dira, bai teoriarik bai praktikan, ikasleekin egiteko proposatu ditugun jardueretan.

Gizon eta emakumeen sozialazioa ez da neutroa. 1970eko hamarkadaz geroztik korrante eta mugimendu feministen eskutik **genero-analisia eta -ikuspegia** aplikatzen hasi zenetik hona, bestelako modu bat daukagu errealitateari «begiratzeko»: desberdintasunei naturaltasuna ukatzen die eta emakumeek pairatzen zituzten bazterketa-egoera modu guztiak bistaratzen ditu.

Gizonengandik eta emakumeengandik zer espero behar den, zer genero-agindu onartzen diren eta gizarte jakin bat ulertzeko eta hartan ondo portatzeko modua nola barneratzen den ikasteko modu sozial horrek leku desberdinetan kokatu izan ditu gizonak eta emakumeak. Beraz, esan dezakegu sexismoak berak berez abiarazi dituela emakumeen eskubideak eta gizonezkoen gaitasunetako batzuk murriztu dituzten arazo sozialetako asko. Horregatik da garrantzitsua eskoletan genero-ikuspegidun ikusmolde profesional bat edukitzea eta aplikatzea.

## 4.1 Gizonak eta boterea

Historiaren eta lorpenen kontakizuna batez ere gizonek sortu duten gizarte batean, funtsezkoa izan da –eta orain ere bai– gizonen eta boterearen arteko erlazioa aintzat hartzea gizonezkoen pribilegioek iraun izana azaltzeko, eta erlazio horrek gizonen identitate indibiduala eraikitzeke unean duen garrantzia analizatzeko. Hainbat modutan definitzen du Sarasolaren Euskal Hiztegiak boterea: «Zerbaitetarako ahala, indarra edo eskua». Baina bada beste definizio bat ere: «Beste norbait baino indartsuagoa izatea». Gizonezkoen identitatea bigarrenari lotuago dago, lehenari baino. Historian zehar sortu diren gizarte-harremanak «besteak baino gehiago izatean» oinarritu dira, ez «egin ahal izatean». Gizon askorentzat, (ekonomikoki, sozialki) boteretsua izateak ez du esan nahi pertsona gisa errealizatzea edo haztea, beste gizonekin lehiatuta irabaztea baizik: «nork bere buruarekin eta hurkoarekin alderatuta eraikitzen du bere burua» (Badinter). Gizonezkoen autoestimua kanpo-lorpenekin elikatzen da batez ere, kuantifikagarriak eta besteekiko konparagarriak diren lorpenekin.

Gizonezko gazte askok bizitzan hainbat autorek «plusbalio maskulinoa» esaten dioten hori dute: alegia, gizon izate hutsagatik garrantzi handiagoa esleitzen zaie beren ekintzei, eta askatasun handiagoa ematen zaie emakume gazteei baino. Horren ondorioz, gizonen portaerak desberdin neurtzen dira, eta, alderdi askotan, balio eta aitorten handiagoa ematen zaie.

## 4.2 Berdintasunaren kontrako oztopoak politikaren eremuan

Azken urteetan emakumeak etengabe sartu dira politikan, baina oraindik ere erresistentziak daude eta parte hartze hori ez da gizonen parekoa. Gainera, aurrerapen horiek ez dute ordezkatzeko gure gizartean emakumeek, oro har, duten garrantzia eta eginkizuna. Ordezkaritza politikoa berdintasunez gauzatzeko, emakumeek aurkitzen dituzten zailtasunen adibide bat **udaletako praktika politikoa** dugu: Euskadin izandako azken udal-hauteskundeetan, emakume hautetsiak % 41,3 izan ziren; hau da, % 2,5 igo zen horien kopurua aurreko hauteskundeekin alderatuta (Iturria: Eudel).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak hautagai-zerrenda bakoitzean bi sexuak gutxienez % 40 izatera behartzen du. Ikusten dugu, beraz, emaitza xedapen harekin bat datorrela, baina geure buruari galde geniezaioke zergatik ez den alderantziz: % 40 gizonak, esaterako. Berdintasunak politikaren eremuan aurkitzen dituen oztopoak hobeto ulertzeko, emakumeek udaletan hartzen dituzten karguei erreparatu behar genieke. Nolanahi ere, boterea eta autoritate politikoa gizonen eskuetan uzteko joeraren indarraren erakusgarri nagusia beste datu hau da: hauteskunde horietan bertan hautatu ziren alkateen % 74,4 gizonak izan ziren (hiru hiriburuetako batean ere ez da emakume alkaterik egon demokrazian); hots, emakume hautetsiak % 40 badira ere, emakume alkateak % 25 urria baino ez dira udalerrri bat gobernatzeko orduan (Iturria: Eudel).

Deustuko Unibertsitateak eginiko «Emakume politikarien irudikapena prentsan» izeneko azterlanean egiaztatuta da 2010. urtean Espainiako estatuan argitaratutako berrietan agertu ziren emakume politikarien presentzia % 12koa izan zela, eta gizonezkoena, % 88koa.

Gizonek –ez guztiek, ez denek berdin– hierarkizazio-maila handiz egituratu dute **antolamendu soziala**, dela arrazan oinarrituta, dela gizarte-klasean, dela erlijioan..., eta sexismoan ardaztuta beti. Ondorioz, botereaz baliatzeko modua norgehiagokan eta lehian oinarritu da, eta ez adostasunean eta bat etortzean. Gatazkak konpontzeko gerra egitea izan da horren isla muturrekoena, eta oraindik ere hala da. Bidezkoa dirudi, beraz, gutxienez egungo botere-egiturak neurri handi batean gizonek diseinatuak direla esatea, eta beren neurri egindako mundua eraiki dutela, non gehiago balioetsi izan diren tradizioz gizonezkoen berezko balio eskusibo gisa esleitu izan zaizkien ezaugarriak: sendotasuna, indarra, oldarkortasuna eta babesa.

Botere ekonomikoaren mundua eta lan-mundua lotuta egon dira botere politikoarekin, eta inoiz horrekin bat eginda ere egon dira. Bada, mundu horiek argiro azaltzen digute oraindik ere zer nolako zailtasunak dau- den gizonen eta emakumeen aukera berak izateko.

### 4.3 Berdintasunaren kontrako oztopoak lan-munduan

Genero-erolek ikasketak aukeratzen den unetik bertatik xedatzen dute askotan zer aukera profesional di- tuzten batzuek eta besteek. Horren ondorioz, ikasketa batzuk oso maskulinizatuta daude, eta beste batzuk, berriz, oso feminizatuta. Azken urteotan gertatu diren aldaketak gorabehera (gehien bat emakumeak sartu direlako orain arte tradizioz gizonen eremu ziren adarretara, eta ez alderantziz), gizonen gehiago dau- de ikasketa teknikoetan, eta emakume gehiago humanitateekin eta zaintzarekin zerikusia duten adarretan. Adibidez, 2009an emakumeen % 27ak besterik ez zituen aukeratu ikasketa teknikoak. Horren guztiaren on- dorioz, lan-merkatuari dagokionez, industria-sektore gehiengan gizonak dira nagusi, eta zerbitzu-sektorean, berriz, emakumeak. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ikasleen prestakuntza-aukerak ikuspegi ez-sexista batez lantzea, berdintasunaren aldeko aldaketak eragiteko.

Lan-munduan ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera- eta aintzatespen-berdintasunaren kontra egi- ten duten oztopoak aurkitzen ditugu.

Oztopo horietako bat da emakumeen gaitasun teknikoari buruz dabilen estereotipoa, edo, hobeto esateko, gaitasun horren ustezko gabezia. Hedatuegi dagoen ustea da biologiak ere argitua duela desberdinak direla gizonen eta emakumeen gaitasunak, baita lan eta abstrakzio teknikoak egiteko unean ere. **Genero-estereo- tipo** horrek zaildu egiten du ikasketa teknikoak aukeratu dituzten emakumeen lan egitea, gizonen exijitzen ez zaien ahalegin gehigarria eskatzen baitaie emakumeei.

Oraindik ere indartsu jarraitzen duen beste uste bat da **lan egitearen ardura** gizonari dagokiola bakarrik, eta ez beste inori. Gaur egun emakume gutxi ez du kontuan hartzen lan egitea pertsona gisa osatzeko; haatik, gizonen areago lotzen da bizitza profesionaleko arrakasta eta garapena norbere identitate eta autoestimua pertsonalarekin. Datuek erakusten dutenez, gaur egun lan-merkatua batez ere emakumeen usten dute beste zeregin batzuetan hasteko; zaintza-lanak egiteko, esate baterako. Gizonen familia zaintzeko xedez (seme-alabak edo familiako beste kide batzuk zaintzeko) hartzen dituzten eszedentziei dagokienez, oro har hazten ari den joera dela erakusten du erabilera horren gaineko bilakaeraren gaineko azterketak, eta, 2012an eta 2013an zertxobait atzera egin bazen ere, 2014an % 8,7 areagotu zen eszedentzien erabilera hori. Datu horrekin, era berean, eszedentzietako protagonistak zalantzarik gabe emakumeak direla ikus daiteke, eszedentzien % 95 inguru hartzen baitituzte emakumeek, seme-alabak zaintzeko orduan.

Familiarrak zaintzeari dagokionez, gizonen gehiago hartzen dituzte mota horretako eszedentziak se- me-alabak zaintzeko eszedentziak baino, eta 2014ko eszedentzia guztien % 17,8 izan ziren horiek. Hala ere, emakumeak dira senideak zaintzeko prestazio mota horiek gehien eskatzen jarraitzen dutenak (% 82,2). (Zifrak: EMAKUNDE 2015)

Pertsona gehienek (% 57,1) uste dutenez, bikote heterosexual batean bi kideetako batek umeak zain- tzeko lana utzi behar baldin badu, bietatik lanik prekarioena duenak utzi behar luke; hala ere, ehuneko handi baten ustez (% 36,1), emakumeak lan gutxiago egin, eta etxeko lanetara arduratu behar luke (CIS barometroa, 2010eko martxoa). **Lidergoaren eredu maskulinoak** ere lan-munduko oztopoak finkatzen laguntzen du, estilo eta eredu bakar moduan unibertsalizatu baita. Nabarmendu behar dugu, halaber, kasu askotan emakumeen autoritatea ez dela aintzatesten enpresa barruan.

Emakumeen zaintzan eta etxeko lanetan dedikazio eta ardura handiagoa eduki izana, gizonen kopuru handi baten inplikazio falta zaintza lanetan eta enpresetan bizitza profesionala eta pertsonala bateratzeko neurririk ez izatea, faktore eta kausa izan dira, besteak beste, gizonen eta emakumeen aukera desberdina izateko prestakuntza jarraitua jasotzeko, eta trebakuntza eta hobetze tekniko programetan parte hartzeko.



**Sexuen araberako soldata-desberdintasuna** nabarmena da oraindik ere. Emakundek adierazi du 2013an gizonen emakumeek baino 9.888 euro gehiago kobratu zutela urtean, batez beste. Emakumeen batez beteko soldata 14.526 € izan zen, eta gizonena, berriz, 24.414 €. Zerbitzuen sektorean dago alde handiena. Espainian, gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldea “% 19,3koa da; EBko herrialdeetan, batez beste, % 17,4koa da, Eurostaten 2013ko datuen arabera.

#### 4.4 Oztopoak kulturaren eta gizartearen arloan

Gero eta maizago agertzen dira emakumeak kulturaren eta gizartearen erreferentziazko pertsona gisa, tradizioz gizonen egokitu izan zaizkien zeregin eta roletan. Hala ere, oraindik ere nahiko handia da gizonen batek eta emakumeen batek bete behar duten **irudiak** dakarren zama. Komunikabideek, bestalde, oraindik ere erreferente desberdinak sortzen dituzte emakumeentzat eta gizonentzat. Ez bakarrik albisteak aurkezten dituzten emakume eta gizonen gehien irudia: gaztetasuna, janzkera, edertasun-kanona... Gizon-emakumeek EITBn zuten protagonismoari eta ordezkartzari buruz Iparhegoak 2011n egindako ikerketak dienez, EITBko albistegietan aditu gisa agertzen diren % 85 gizonetzkoak dira. Emakunderen beste txosten batek, “Sexismoa Europako 2014ko hauteskunderen egindako publikitate- eta informazio-tratamenduan. Sexismoa antzemateko tresnak” txostenak, alegia, honakoa adierazi du aurkikuntzen artean: “Kanpainan zehar komunikabideetan nolabaiteko protagonismoa eduki duten hamar pertsonatik zazpi gizonak izan dira. Emakumeei % 31,7 egokitu zaie albistegi, prentsako testuen, irratiko eta telebistako agerpenetan, hauteskunde-eskaintzan % 46,6 diren arren.”

Oso agerikoa da emakumeen lorpenen ikusezintasuna, bai **historiaren zehar** –gizonak baino gutxiago aipatzen eta aintzatesten direlako–, bai aintzatespen publikoetan. Esate baterako, 2010ean, unibertsitatearen esparruan, Honoris Causa Doktore izendatu zituzten 97 lagunetatik % 15,46 besterik ez ziren emakumeak, ikasketa-amaierako saridunetan % 56 izanda ere. Espainiako Estatuko ministerioek ohoratutako 505 lagunetatik, berriz, % 18,61 besterik ez ziren emakumeak izan (Iturria: Emakumearen Institutua, 2011).

#### 4.5 Berdintasuna eta tratu txarrak bikote-harremanetan

Gizonen eta emakumeen ez diote berdinduz helduz maitasun erromantikoari eta bikote-harremanei (heterosexualei nahiz bestelakoei). Gure gizartean **maitasun erromantikoaren** nola eraikitzen den eta horrek maitasun-erlazio asimetrikoak sortzen nola laguntzen duen: gai horri ikuspegi batetik baino gehiagotik hel dakiokkeen arren, gizonekin zerikusia duten elementu batzuk baino ez ditugu aztertuko.

Gizon askoren bizitzan maitasunak duen tokia eta pisua, esanguratsua izanagatik ere, emakumeen kasuan baino erlatiboagoa da; ez da emakumeengan bezain nabarmena. Eredu maskulinoak maitasunaz eta familiaz gaitatik arloetan ere kokatzen du arrakasta pertsonala. Hala, gizonen kasuan, faktore-konbinazio bat da arrakasta, eta eskema horretako bat da bikotea; beraz, gizonengan, maitasunik eza ez dago porrot pertsonalari lotua, ez emakumeengan gertatzen den bezain estu, ezta neurri berean ere.

Gizonen ez dute maitasun-sentimendua aise aipatuko, are gutxiago jendaurrean. Maitasunarekiko hotz ageri dira, urrunago, sentitzen dutena hobeto kontrolatuko balute bezala. Beren buruarengana segurtasuna dutelako jarrera horrekin, asko balioesten dutenez, bikotekidearekiko nahiz maitasunarekiko independentzia-irudia eskaintzen saiatzen dira.

Maitasun erromantikoaren imajinarioak, gure gizarteetan hegemoniko bilakatu den maitatzeko modu horrek, gizonetzkoek gordetzen dizkien rolek zerikusi handiagoa dute **heroiaren eta konkistatzailearen** figurarekin sortzen ari diren gizon-eredu sentikor eta hunkiberagoekin baino. Horrelakoak dira mutil gazteek bereganatzen dituzten lehen erreferentziak: gizon arrakastatsuek, kirolariak edo zinemako heroiak, «gaiztoak garaitu eta neskekin gertatzen diren» horietakoak. **Mutil «gaiztoaren» irudia** erakargarritzat jotzea oraindik ere oso hedatua dago.

Aintzat hartuta gizonen eta emakumeen arau sozialei ez dietela berdinduz aurre egiten, gizonen sozializazioan, araua haustea, urratzea, balioztat hartzen da gizartean, pertsona bizkor eta azkarrei dagokien balioztat. Emakumeei, aldiz, haustura horrek gizartearen gaitzespena eta bazterketa ekartzen die: «emakume txarra da».


Kezkatzekoa da zenbat gazteek nola lotzen dituzten oldarkortasuna eta gizontasuna. Inkesta bete duten gizon gazteen % 19,7k uste du oldarkorrage ageri den mutila erakargarriagoa dela emakumeen begietan (Amurrio et al., 2008)



**Sexualitatea** oraindik ere desberdin bizi dute emakumeek eta gizonak. Gizonen artean maitasunaren eta sexualitatearen kontzeptu kuantitatiboa gailentzen da, eta hortik dator gizarte-ospea, nola gizonen artean, hala emakumeen artean. Gizonen autoestimua zati handi bat beren buruarengandik kanpo dago, beste gizonak nola ikusten dituzten baita kontua. Gizontasuna berretsi beharra dute etengabe, eta horregatik ibiltzen dira harrotuta eta itxurak egiten. Sentimenduak adierazteko unean buruan izan behar dugu guri dagokigun taldeak, bat egiten dugun horrek, indartu egiten dituela portaera batzuk, eta bestelako portaera batzuk, berriz, zigortu. Hala, sentsibilitate handiagoa erakusten duten gizonetako askok presio publiko homofobo handiak pairatzen dituzte. Horren ondorioz, sentimendu eta emozio jakin batzuk ezkutatu egiten dira, eta ez dira normal partekatzen gizonen artean.

Maitasuna bizitzeko eredu horrek ez ditu leku berean kokatzen emakumeak eta gizonak. Gizonetako pribilegioetako batzuk indartu egiten dira horrela, eta askatasun handiagoa izaten da ekintza sozialerako eta sexu-harremanetarako. Gizon askoren erabakiek indar handiagoa dute beren bikotekideen erabakiek baino: gizonak gutxiago amore ematen dute, eta garrantzi txikiagoko arloetan.

Bikote-harremanetan maskulinitateari lotutako balio moduan ageri da askatasuna. Mutil gazteen % 32k uste du, ia nesken halako bik (%17), harremanean garrantzitsuena unea bizitzea dela, konpromisorik gabe; estatistiketan, alde hori oso da esanguratsua. Aldi berean, mutilen gehiengo handi baten ustez (% 65), harremanean garrantzitsuena sentimendua da, eta sentimenduak bikotekidearekiko dakarren konpromisoa; harremanari buruzko ikuspegi erromantiko horrekin bat dator neska gazteen % 82 (Amurrio et al. 2008).



Norberaren askatasunaren garrantzi hori guztiz bateragarria litzateke beste balio batzuekin, hala nola bikotekidea kontrolatzearekin; hala, mutil gazteen % 39,2k uste du maitasuna dagoenean elkarrekin egon nahi izaten dela beti; neska gazteen artean, berriz, % 26,1ek uste du hori (Amurrio et al. 2008).

Aurreko datuek erakusten digutenez, balio horiek batzuetan desberdinak edo kontrajarriak dirudite, gizonetako maitasuna bizitzeko duten modu nahasi eta konplexuaren erakusgarri. Askatasuna gehiago dagokio autonomiari mutilen kasuan, eta bikotekidearen kontrolari nesken kasuan (hau da, neskek askatasun txikiagoa edukitzeari). Hala ere, mutil gazteentzat faktore garrantzitsuak dira harremanarekiko norberak duen konpromisoa, erromantikoa hori, eta mendekotasun maskulinoa (beti elkarrekin egotea) maitasun-harremanean.

Aurreko datuek erakusten digutenez, balio horiek batzuetan desberdinak edo kontrajarriak dirudite, gizonetako maitasuna bizitzeko duten modu nahasi eta konplexuaren erakusgarri.

Askatasuna gehiago dagokio autonomiari mutilen kasuan, eta bikotekidearen kontrolari nesken kasuan (hau da, neskek askatasun txikiagoa edukitzeari). Hala ere, mutil gazteentzat faktore garrantzitsuak dira harremanarekiko norberak duen konpromisoa, erromantikoa hori, eta mendekotasun maskulinoa (beti elkarrekin egotea) maitasun-harremanean.

## 5. Genero-arazoak gizonengan

Azken aldian aurrerakada handiak egin diren arren, oraindik ere oztopo ugari dago, eta oztopo horiek erakusten digute oraindik ez gaudela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako gizarte batean, baizik eta berdintasunerako bidean dagoen gizarte batean, non atzeraldiak eta zailtasunak dauden, non gizonak emakumeek baino **pribilegio** gehiago izaten jarraitzen duten.

Berdintasuna oraindik urrun duen errealitatea aztertu dugu laburki, eta ikusi dugu gizon askok gizon izate hutsagatik dituztela hainbat pribilegio; haatik, segidan ikusiko dugunez, eredu maskulino tradizionalak **kaltea** ere ekartzen die gizonari berei. Michael Kaufmanek gizonen boterearen paradoxa deitu duena da; hau da, "gizonok gure botere soziala eta banakako boterea eraikitzeke erabili dugun bidea, paradoxikoki, beldur-, bakartasun- eta min-iturri izan da geure buruarentzat". (2014)

Eredu maskulino tradizional hori erreproduzitu nahi izateak baditu bere ondorioak beste eremu batzuetan: gizonak osasunari dagokionez nola jarduten duten, zer kontzeptu duten arriskuaz, gizonezkoen heroismoaz, edo emozioak nola kudeatzen dituzten. Nerabearoa une garrantzitsua da norbere identitatea eraikitzeko; beraz, etapa egokia da portaera sexistei aurea hartzeko.

## 5.1 Maskulinitate-eredu hegemonikoaren ondorioak

Ondoren ikusiko dugunez, eredu maskulino tradizional hori erreproduzitu nahi izateak baditu bere ondorio txarrak; haatik, ez ditugu gizonak biktimizatu behar. Gure gizartean bizirik dirauen sexuaren arabera bereizketak onura gehiago ekartzen die gizonei emakumeei baino: zaintzaz eta aisiaz gozatzen dute, egoera ekonomiko hobea dute, eta, gainera, haiek jasotzen dituzte zuzenean gehien bat emakumeek egiten dituzten etxeko lanen onurak.

Sexismoak gizonezkoen eragiten dizkien ondorioak aztertuz, gure gizartean oraindik ere pisu handiegia duen **maskulinitate tradizionalaren ideia** taxutzen duten elementu guztiak landu nahi dira. Horrela egitea ez da neutroa; kontua ez da gizonek irabazten duten ala ez, berdintasunezko portaera gehiago dituzten ala ez; ez da behintzat kontu bakarra. Sexismoak gizonezko askori eragiten dizkien ondorioak analizatzearren helburua da mutil gazteek landu eta identifikatu dezatela eredu tradizional maskulinoek nola eragiten digun gure eguneroko bizitza pertsonalean (estatistikatik harago), eta eredu horiek zer ondorio –zer desberdintasun eta zer muga– eragiten duten emakumeen eta gizonen artean.

## 5.2 Gizonak eta beren burua eta osasuna zaintzearekiko harremana

Gizonen eta beren osasunaren arteko erlazioak genero-osagai sendoa du. Ia gizon guztiak entzun izan dute umetan «ez negarrik egin eta izan gizona!». Agindu horren bidez, identitate maskulino jakin bat eraikitzen da: **mina eta gaixotasuna** aitortzea **ahuldade-zantzutzat** hartzen duen identitatea, hain zuen ere.

Azterlan zenbaitek ezaugarri problematiko batzuk aurkitu dituzte gizonen eta osasun-sistemaren arteko interakzioan (Luis Bonino 2002<sup>1</sup>). Horietako batzuk gorputzaren alarma-zeinuak hautemateko zailtasunarekin lotuta daude, zeinuak ez baitira behar bezala aintzat hartzen; horrekin batera, pairatzen den gaitza onartu nahi ez izatea dago, ez norbere buruaren aurrean, ez besteen aurrean. Kontua ez da, beraz, gaixotasunaren sintomak ez zaiela aintzat hartzen; aitzitik, antzeman bai, baina bigarren mailako arazotzat hartzen dira, gizonengandik ondoezak jasateko indarra eta gizontasuna espero baita. Horregatik atzeratu ohi izaten da medikuari galdetzea, eta gaixotasunak izan dezakeen diagnostikoa. Medikuen aginduak betetzeko eta tratamenduak amaitzeko ere zailtasunak aurkitzen dira gizonen artean. Arazoei bakarrik aurre egiteko, eta, ondorioz, tratamenduak baztertzeko joera izaten du gizon askok, eta horrek gaixotasuna sendatzea eragozten du.

Maskulinitatearen eredu tradizionalak gizon askoren bizitzan zuzenean edo zeharka eragiten dituen ondorioekin hasi baino lehen, esan behar dugu unitate didaktiko hau osatzen duten jarduerak fitxetan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko beste gai garrantzitsu batzuk ere analizatzen direla, hala nola gizonek zer lotura duten indarkeriarekin –oro har–, eta emakumeen aurkako indarkeriarekin –bereziki–, arriskuarekin, emozioekin, eta homofobiarekin.

## 5.3 Bizi-itxaropena

Gizonek eta emakumeek ez dute bizi-itxaropen bera. INEren arabera, 2013an, 80,0 urtekoa da gizonentzat, eta 85,6 urtekoa, emakumeentzat. Alde horrek ez du biologian oinarritutako esplikaziorik; aldiz, gizonen eta emakumeen portaera sozial desberdinen ondorioa da. **Bizimodu desberdinekin** lotzen da, zaintzari heltzeko eta gidatzeko moduekin. Gazteen arteko hilkortasuna ere desberdina da sexuaren arabera: 15etik 29 urtera bitarteko gizonen artean, gazteen heriotza-tasak gaitzitu egiten du 15etik 29 urtera bitarteko emakumeena.


<sup>1</sup> Bonino Mendez, Luis. *Masculinidad, Salud y Sistema Sanitario. el Caso de la Violencia Masculina*. Emakumearen Institutua, 2002

## 5.4 Gizonak eta suizidioa

EAEko suizidioei buruzko estatistiketan **gizonezkoak dira nagusi**, luzez. 2014an, EUSTATen datuen arabera, 183 suizidio izan ziren, guztira: 123 (% 67,2) gizonak izan ziren, eta 63 (% 32,8) emakumeak.

MOEk dioenez, herrialde aurreratuetan, gizonak emakumeak **halako lau suizidatzen dira**, eta, dirudie-nez, aldea gero eta handiagoa da.

Zifra horiek, besteak beste, gizonok eta emakumeok sentimenduak eta emozioak kudeatzeko dugun modu ezin desberdinaoarekin lotu ditzakegu. Egokia dirudi adieraztea maskulinitate tradizionalaren kontzeptuak, hots, besteen aurrean zaugarri ez agertzeak eta sentimenduak ohikotasunez ez partekatzeak, lotura duela suizidioarekin, kontuan hartzen badugu hauek izan daitezkeela suizidiorako kausak: asaldura mentalak (depresioa, esaterako), gaixotasun kroniko bat pairatzea, gertaera pertsonal larri bat izatea, bakardadea edo errorik ez edukitzea.



Kanpoko heriotza-kausari erreparatuz gero, genero-alde nabarmena aurkituko dugu motordun ibilgailuengatiko, suizidioengatiko eta lesioengatiko heriotzetan, INEren 2012ko datuen arabera.

## 5.5 Gizonak, delitu egitea eta indarkeria


Gizonek indarkeriarekiko eta arauak haustearekiko duten erlazioaren ondorioak argiro azaltzen dira Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalaren datuetan (INE). 2014an honela banatzen ziren, sexuka, Estatu-tuko presoak: gizonak % 92,34 (60.040), eta emakumeak % 7,65 (4.977). EAEn, berriz, 1.224 preso zeuden guztira: **gizonak % 87,74** (1.074), eta emakumeak % 12,25 (150).

Espetxeetan hautematen den gizonezkoen gehiengo handi horrek zuzeneko zerikusia dauka arazoak konpontzeko modutzat hartzearekin indarkeria. Kontuan hartzen badugu gure gizartean kolektibo pobretuena emakumeena dela, batez beste diru-sarrera gutxiago baitute, eta Espetxeetako Zuzendaritzaren 2014ko txosteneko analisiarekin jarraituz, delituen % 59,1 onda-rearen eta osasun publikoaren aurkakoak direla ikus dezakegu. Zentzuzkoa litzateke geure buruari galdetzea zergatik ez dagoen emakume gehiago mota horretako delituetan nahastuta. Edonola ere, hamarretik zazpi emakume daude espetxean ondarearen eta osasun publikoaren aurkako delituengatik (% 71,3), eta % 1,38 indarkeriazko delituengatik. Gizonen kasuan, aldiz, % 30 daude espetxean indarkeriazko delituengatik, eta % 58 ondarearen eta osasun publikoaren aurkako delituengatik. Bada, egiazta genezake **gizonek gatazkak konpontzeko erabiltzen duten moduak lotura handiagoa duela delituak egitearekin, are indarkeria erabiltzearekin ere.**

Gizonek delituarekin duten loturan eragiten duen beste faktore bat: emakumeek besteak zaintzeko joera handiagoa daukate, eta gizonek, ondasun materialez hornitzekoa; hartara, emakumeentzat sendoagoa da aita-ama eta seme-alabekiko lotura, eta nekez egingo dute hura kolokan jar lezakeen ekintzarik.

## 5.6 Gizonak, arriskua eta ibilgailuak gidatzea

Bide-istripuen kopuruek ez dute zalantzarako tarterik uzten gizonek eta emakumeek gidatzean erakusten duten aldeari dagokionez.




Iturria: TZN, 2011

Zehapenei buruzko datuek ere ez dute zalantzarik eragiten.

### 2006 eta 2010 bitartean erretiratu diren gidabaimenen kopurua.

Bada gidatzeko modu bat, **arris-kuari, ausardiari eta autoestimu maskulinoari lotua**, ibilgailu-mota guztietan ageri dena.

Autoa aukeratzean ere irizpide desberdinei jarraitzen diete gizonek eta emakumeek: emakumeek batik bat erosotasuna eta erabile-ra har-tzen dute kontuan; gizonek, aldiz, indarra, ospea eta abiadura. Automobil-iragarkietan ikusi besterik ez dago nork gidatzen duen zer auto-marka eta zer auto-mota, eta berehala jakingo dugu nori saldu nahi dioten.




## 5.7 Gizonak eta droga-kontsumoa

Osasunaren kudeaketari lotutako arriskuaren kontzepzioa dela eta, **kontsumo-ohitura desberdinak daude gizonetako eta emakumetako kontsumitzaileen artean**. Angel Rekaldek eta Carlos Vilchesez egindako Drogas de ocio y perspectiva de género en la Comunidad Autónoma Vasca izeneko azterlanean gizon eta emakumeen droga-kontsumoaren inguruko hainbat desberdintasun aipatzen dira. Gizonak sarriago egiten dituzte nahasturak, eta dosi handiagoak kontsumitzen dituzte; maizago irteten dira, pozik egoten dira parranda-guneetan, beranduago erretiraten dira eta, oro har, gehiago kontsumitzen dute. Gainera, luzeago irauten dute kontsumitzen, eta harrotu egiten dira horregatik. Gizarteak oraindik ere gehiago babesten ditu neskek mutilak baino, eta gurasoek ere lausoago kontrolatzen dituzte semeak alabak baino. Gizonak ez dute oldarkortasuna ekiditen beren portaeran eta bizi dituzten egoeretan. Mutilak ez dituzte hain ageriko ikusten kontsumitzearen arriskuak. Ez dira neskek bezain burutsuak eta zuhurak, eta ez dira parranda antolatzen hainbeste arduratzen, festara agertu aurretik ez dute aurreikusten zer eta zenbat kontsumituko duten. Neskek baino legez kanpoko droga gehiago hartzen dituzte, eta erakargarri zaizkie zenbait gairen kontsumoaren ondorioak (hala nola estimulagarriak), gatazkak eta gatazka-egoerak.

Beraz, oso desberdinak dira droga-mendekotasuna tratatzeko EAEko zentroetan izandako 15 eta 29 urte bitarteko mutilen eta nesken kopuruak.

Gure gizartean oso desberdin baloratzen dira oraindik ere gizonetako eta emakumeen droga-kontsumoak. «Gizonen kasuan, haien sexuari dagokion jardueratzat hartzen da; kontsumitzen ez duen gizonaren gizentasuna zalantzan jartzeraino inoiz» (Farapi SL); emakumeen kasuan, berriz, estigmatzeko kausa izan da.





Drogazaletasunagatik tratamendua hasi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, sexuaren arabera. Eusko Jaurlaritzaren datuak.

### **Gizonak, ikasketei eta prestakuntzari dagokionez.**

Ikasketak eta ogibidea aukeratzeko unean gure kultura sexistak duen pisuaren ondorioz, desberdinak izan ohi dira gizonen eta emakumeen hautuak. Lehenik, ikasketak aprobetxatzeari eta haien egokitasunari dagokionez. 2010. urtean, "Panorama de la educación: Indicadores de la OCDE 2010<sup>2</sup>" txostenak dioenez, mutilen % 67k eta nesken % 80k amaitu zuten DBH. DBH amaitzea lortzen duten ikasleen artean bada beste alde bat ere: mailaren bat errepikatua dutenen proportzioa % 26koa da nesken artean, eta % 49koa, mutilen artean.

Gaur egun, emakumeek **kalifikazio hobek** izaten dituzte, ikasketetan jomuga handiagoak izaten dituzte, eskola-programa zorrotzagoak hartzen dituzte eta ehuneko handiagoan parte hartzen dute goi-mailako eskoletan. Estatuko unibertsitateaz besteko ikasketa-zentroetan, Unibertsitate Konplutentseak eta Berdinta-


<sup>2</sup> Panorama de la educación. Indicadores de la OCDE 2010, informe español. Hezkuntza Ministerioa, 2010



suneko Ministerioak egindako Igualdad y Prevención de la Violencia de Género en la Adolescencia izeneko azterlanean, gizon eta emakume gazteen **jarduera desberdinei** buruzko bi koadro ikus ditzakegu. Lehen ikasketei eta ikasgelako lanari emandako denborari buruzkoa da. Horretan egunean bi ordu baino gehiago ematen duten mutilak % 23,1 dira; neskek, berriz, % 49,6.

Bigarren koadroak kirolean emandako denboraren banaketa erakusten du. Mutilen % 35,5ek egunean bi ordu edo gehiago ematen du kirola egiten; nesken artean, aldiz, % 10,5ek soilik.

Eskolako porrota gizon askoren arazo bilakatzen ari da, eta gizonen identitatearen eraikuntzarekin duen lotura analizatu beharra dago. Non kokatzen dute gizonek **arrakasta profesionala**? José Ángel Lozoyak<sup>9</sup> ideia interesgarri batzuk planteatu ditu hori dela eta: «Belaunaldi luzeak daramatzate gizonak beren indar-lana saltzen, eta neskek baino konfiantza txikiagoa dute tituluan lan-merkatura sartzeko tresna gisa. Gehiago fidatzen dira arrakasta profesionala eta ekonomikoa izateko daukaten ekimenaz. Halaber, gehiago dira eskala sozialean gora egiteko dirua ikasketak baino bide seguru eta azkarragoa dela uste dutenak.»





## 6. Zenbait ondorio

Gizonen eta emakumeen ohiko portaera asko **auzitan jartzeko** unean gaude. Tresna pedagogiko honek une horretaz baliatu nahi du, gizarte-aldaketa eragiteko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren mesedetan. Aldaketa horrek borondate eta lan kolektiboaren eta indibidualaren beharra du aurrera egingo badu, jarrera eta portaera pertsonalak ere aldatu behar baitira, diskurtsoak eta balio sozialak ez ezik.

Oraindik ere, gure gizartearen zati batek **berdintasunik eza** pairatzen du emakume izate hutsagatik. Egoera aldatuz gero eta zuzenago bilakatuz gero, gizartea bidezkoagoa izango da eta, eta, horretaz gainera, emakumeen bizitza hobea izango da. Etxeko lanak eta etxekoen zaintza partekatzearen eta arlo publikoan ere parte hartzearen ondorioz, desagertu egin dira emakumeek lehen zituzten eragozpenetako asko. Gizonezkoen bizitza ere hobetzen da. Arrisku-egoeretatik urrunduta, euren buruak eta ingurukoak gehiago zainduz, saihestu egiten dira sexismoaren albo-ondorioak; eta, azkenik, **gizarte osoarentzako onurak** sortzen dira, gizartea bidezkoago bihurtzen baita, amultsuago, eta, ekonomiaren ikuspegitik, garatuago ere bai.



## 7. BIBLIOGRAFIA

- AMORÓS, Celia: La gran diferencia y sus pequeñas consecuencias... para las luchas de las mujeres. Cátedra, Feminismos bilduma, 2006, Madril.
- AMORÓS, Celia. DE MIGUEL, Ana (ED.): Teoría feminista: de la ilustración a la globalización, 1, 2 eta 3. Minerva ediciones. 2007, Madril.
- AMURRIO VÉLEZ, et al. "Genero-indarkeria Bilboko nerabeen eta gazteen bikote-harremantetan.", Zerbitzuan: Gizarte Zerbitzuetarako aldizkaria – Revista de servicios sociales 47 (2010): 121-134.
- BACETE GONZÁLEZ, Ritxar, BERGARA SAUTUA Ander, RIVIERE ARANDA, Josetxu: Los hombres la igualdad y las nuevas masculinidades. Emakunde, 2008, Gasteiz.
- BACIGALUPE DE LA HERA, Amaia. MARTÍN RONCERO, Unai: Desigualdades sociales en la salud de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Arartekoa, 2007, Gasteiz.
- BADINTER, Elisabeth. XY La identidad masculina. Madril: Alianza argitaletxea, 1993.
- BELL, Donald H: Ser Varón. Tusquets, 1987. Bartzelona.
- BONINO MÉNDEZ, Luis. "Los micromachismos." La Cibeles aldizkaria 2, 2004.
- BORDIEU, Pierre: La dominación masculina. Anagrama, 2005, Bartzelona.
- BUTLER, Judith: Deshacer el género. Paidós Studio. 2006, Bartzelona.
- CASTELLES, Manuel eta SUBIRATS Marina (2007). Mujeres y hombres ¿Un amor imposible? Madril, Alianza Editorial, 2007.
- CIS Barometroa. 2010eko martxo
- CONNELL, Robert: La organización social de la masculinidad.
- CORIA, Clara. El Amor No Es Como Nos Contaron... Ni Como Lo Inventamos. Buenos Aires: Paidós, 2001.
- CORSI, Jorge y Peyrú, Graciela. "Violencias Sociales". Buenos Aires. Ariel, 2003.
- DE BEAUVOIR, Simone: El segundo sexo. 2008 (1949), Feminismos, Madril.
- DE LA CONCHA. Angeles (Coord) El sustrato cultural de la violencia de género.
- DE MIGUEL LUKEN, Verónica: Percepción de la violencia de género en la adolescencia y la juventud. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, Argitalpen-zentroa, 2015.
- DE ROUGEMONT, Denis: El amor y Occidente. Ed. Kairós, Bartzelona, 1979. Editorial Sintesis, 2010
- EDE FUNDAZIOA, "Sexismoa Europako 2014ko hauteskunderen publizitate- eta informazio-tratamenduan. Sexismoa antzemateko tresnak". Emakunde. Vitoria-Gasteiz, 2015. 156. or.
- ELI, Robin J. eta MEYERSON, Debra E.: Unmasking Manly Men: The Organizational Reconstruction of Men's Identity.
- EMAKUNDE. "2015eko zifrak – Emakumeak eta gizonak Euskadin".
- EMAKUNDE. Sare 2007 Masculinidad y vida cotidiana / Maskulinitasuna eta eguneroko bizitza.
- FARAPI SL. Drogas y Género. Editado por Gizonduz. Emakunde. 2009
- FERNÁNDEZ LLEBREZ, Fernando. Masculinidades y violencia de género ¿Por qué algunos hombres maltratan a sus parejas (mujeres)?, Granada, 2005.
- GARAIZABAL ELIZALDE, Cristina, et al. Buenos tratos: prevención de la violencia sexista. Koord. Caro, María Antóni eta Fernández Llebraz, Fernando. Talasa, 2010.
- GARCÍA Fernando, J. CASADO Elena. Violencia. en la pareja: género y vinculo. Editorial Talasa. 2010
- GIL CALVO, Máscaras masculinas: héroes, patriarcas y monstruos. Anagrama, 2008, Bartzelona.
- GILMORE, David D: Hacerse hombre. Concepciones culturales de la masculinidad. Bartzelona, Paidós, 1990.
- GOMEZ, Jesus. El amor en la sociedad del riesgo. Coleccion Apertura 2004
- KAUFMAN, Michael: Los hombres, el feminismo y las experiencias contradictorias del poder entre los hombres. in Theorizing Masculinities, Oaks, 1994.
- KEIJZER, Benno: Hasta donde el cuerpo aguante. Género, cuerpo y salud masculina.
- KIMMELL, Michael: La masculinidad y la reticencia al cambio.

- KUALITATEA LANTALDEA, (kolab.) Fernández Casete, June eta al. "Sexismoa joko eta jostailuen 2013ko publizitate-kanpainan. Sexismoa antzemateko tresna. EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundea. Vitoria-Gasteiz, 2014.
- LEGARRETA IZA, Matxalen. "Dos décadas de cambio social en la C.A. de Euskadi a través del uso del tiempo. Encuesta de Presupuestos de Tiempo, 1993-2013". 18. Eta 19. or. Sintesi-dokumentua. EUSTAT, 2015.
- LOMAS, Carlos: ¿El otoño del patriarcado? Luces y sombras de la igualdad entre mujeres y hombres. Bartzelona, Península, 2008.
- LOMAS, Carlos [bild.]: ¿Todos los hombres son iguales? Identidades masculinas y cambios sociales. Paidós, 2003
- LORENTE ACOSTA, Miguel: Los nuevos hombres nuevos. Destino, 2009, Bartzelona.
- LOZOYA, José Ángel. Por qué tiene el "fracaso escolar" cara de chico. 2004
- LOZOYA, José Ángel. ¿Qué es eso de la identidad masculina?
- LOZOYA, José Ángel. Los hombres ante el reto de la igualdad. Cádiz, 2007ko ekaina.
- MAKROINKESTA, Genero-indarkeriari buruzko 2015eko Makroinkesta. Madril. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa.
- MARQUÉS, Josep-Vicent: Curso elemental para varones sensibles y machistas recuperables. Madril, Editorial Temas de Hoy, 1991.
- MARQUÉS, Josep-Vicent: La alienación del varón.
- MARTÍN CASARES, Aurelia: Antropología del género. Culturas, mitos y estereotipos sexuales. Feminismos, 2006, Madril.
- MARTÍNEZ GUZMÁN, Vicent, Filosofía para hacer las paces. Icaria, Bartzelona.
- MÉNDEZ, Lourdes: Antropología feminista. Editorial Síntesis, 2007, Madril.
- MORAL LEDESMA, Beatriz, [FARAPI]: Estudio sobre siniestralidad vial y masculinidad: Gipuzkoako Foru Aldundia, Lurzoru eta garraioen zuzendaritza, 2005.
- MOSSE, George L: The image of man. The Creation of Modern Masculinity. Oxford University Press, 1990.
- NUSSBAUM, Martha C: Capacidades humanas y justicia social. En Necesitar, desear, vivir. Sobre necesidades, desarrollo humano, crecimiento económico y sustentabilidad. Libros de la Catarata, 1999, Madril.
- ORTIZ, Lourdes: El sueño de la pasión. Ed. Planeta, Bartzelona, 1997
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOAREN KABINETEA, Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzioa eta iritziak. Eusko Jaurlaritzako Presidentetza. 2015eko azaroa.
- PULEO, Alicia H (Ed.): El reto de la igualdad de género. Nuevas perspectivas en Ética y Filosofía Política. Biblioteca nueva. 2008, Madril.
- REKALDE, Ángel y Vilches, Carlos. Drogas de ocio y perspectiva de género en la CAPV. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005.
- RODRÍGUEZ PÉREZ, María Pilar (ed.) Representaciones de las mujeres políticas en la prensa. Serie Maior 12 (Humanitateak). Deusto Digital, 2012.
- SAMPEDRO, Pilar. "El mito del amor y sus consecuencias en los vínculos de pareja." Disenso, 45, 2005eko maiatza.
- SEIDLER, Victor Jeleniewski: La sinrazón masculina. Bartzelona, Editorial Paidós, 2000.
- SEIDLER, Victor J.: Masculinidades. Culturas Globales y vidas íntimas. Montesinos, Bartzelona, 2006.
- SEN, Amartya, Desarrollo y libertad. Planeta. Bartzelona. 2000.
- UNDP, Human Development Report, Oxford University Press, 1995.
- UNDP, Human Development Report, Oxford University Press, 2005.
- VALCÁRCEL, Amelia: Feminismo en el mundo global. Madril, Cátedra, 2009.
- VÁZQUEZ, Norma. El ABC del género. Equipo Maíz. 2001
- VÁZQUEZ Norma eta ESTÉBANEZ, Ianire. Indarkeria sexistari buruzko gazteen pertzepzioaren eta iritzien diagnostikoa Ondarroan eta Markina-Xemeinen. 2001.



